

.....

Traña-Matiena Eskola



• AURKIBIDEA	01
• AURKEZPENA	02
• INFORMAZIO OROKORRA	03
• OSASUNA ETA HIGIENEA	06
• JANTOKIA	07
• IKASTURTE HONETARAKO HELBURUAK	08
• ESKOLA KONTSEILUA (OOG)	09
• IKASTETXEKO LANGILERIA	10
• IKASLEEN GURASO ELKARTEA (IGE)	11
• ESKOLAKO EGUTEGIA	12

Aurkezpena

Kaixo familia:

Beste urte batez, **Eskolako Gida**, 2015-2016 ikasturtekoa, ipintzen dugu zuen eskura, **Traña-Matiena** ikastetxearen hainbat zehaztasun jasotzen duena.

Bertan ohiko informazioa topatuko duzue, besteak beste: Irakasleak, Eskola Kontseilua, Guraso Elkarteak, **Funtzionamendu arauak** eta **Jantokia** (azken biak zenbait berrikuntzekin). Baita atal berri bat ere: ikasturterako proposatzen ditugun **erronka** edo **helburu** garrantzitsu batzuk biltzen dituena.

Gida baliogarria izango zaizuelakoan, adeitasunez,

Abadiño, 2015eko urria

Zuzendaritza taldea



INFORMAZIO OROKORRA

Ikasturteko datu orokorrak

Ikasle kopurua, guztira:	421
Lehen Hezkuntzan:	278
Haur Hezkuntzan:	143
LHko talde kopurua:	13
HHko talde kopurua:	8
Irakasle kopurua:	37

Telefonoak

○ Idazkaritza:	946814775 – 695784746
○ Atezaindegia:	944657653
○ Jantokiko arduraduna:	944657652
○ Kontsultorea:	944657654
○ Zuzendaritzako posta elektronikoa:	014002aa@matienaeskola.com
○ IGE:	688608538 ampamatiena@yahoo.es

Horarios del Centro

- Ikastetxeko ohiko ordutegia: 9:00 -12:30 eta 15:00 - 16:30
- Lanaldi jarraia (iraila, ekaina...): 9:00 - 13:00 (jantokia 14:30ak arte)
- Idazkaritzako ordutegia: 9:00 - 11:00 eta 15:00 - 16:15
- Jantokiko arduradunaren ordutegia: 9:00 - 9:45 eta 11:45 - 12:30
- Tutorearekin batzartzeko ordutegia: ostegunetan, 12:30etik 13:30era

Funtzionamendu atalak

Ikastetxeko sarbideak. Kontuan izan beharrekoak

Ikasleen ohiko sarrera eta irteera orduetan eskola-esparruko ate biak egongo dira zabalik. Gainontzekoetan **San Prudentzio kaleko atea** baino ez da erabiliko. Bertan **atezain automatikoa** duzue (*Eskola* ipintzen duen txirrina sakatu).

Eskola esparruan sartu ondoren, honako hau hartu beharko da kontuan:

Haur Hezkuntzako ikasleen sarrera:

- **Maila bakoitzak bere sarrera dauka.** Beraz, ikasle bakoitzak dagokion atea erabili beharko du, eta inola ere ez idazkaritza ondokoa.
- Sartzeko orduan **ezin duzue irakaslearen atentzioa zuenganatu**, ikastaldea bere ardurapean baitauka. **Abisu bat emateko, ohar baten bidez egin edo labur-labur esan.**

Lehen Hezkuntzako ikasleen sarrera:

- Ikasleak ilaretan kokatuko dira, aurreikusitako ordenan eta eskailerak korrika egin gabe eta ordenan igoko dituzte.
- Guraso edo familiakideak **ilaren eremutik kanpo geratu behar dira**, ikasleen sarrera ez oztopatzeko.
- **Gogoratu baita ere familiakideak ezin direla geletara igo**. Abisu bat emateko, agendaren bidez edo ohar baten bidez egin.
- Ikasturte honetan, aproba moduan, **lehen zikloko ikasleak liburutegitik sartuko dira goizetan**. Ateak 5 minutu arinago zabalduko dira, ikasleak igotzen joan daitezen, ilararik egin gabe.

Familia-datuak eguneratzea

Familia-datuen edozein aldaketa jakinaraztea eskatzen dizuegu, **bai tutoreari, zein idazkaritzan**. Bereziki **telefono zenbakiak** eguneratuta eta **erabilgarri edukitzea** eskatzen dizuegu, ezinbestekoa baita **presazko zerbait dagonean** zuekin komunikatu ahal izateko.



Ikasleen hutsegiteak

Beharrezkoa da zuen seme-alabaren **hutsegiteen berri** idatziz ematea tutoreari, baita ohiko ordutegitik kanpo eskolatik atera behar bada ere. Horretarako, gidan eranstean dugun txantiloia erabil dezakezue.

Arazoen konponketak, kexak...

Semeari, alabari edo gelari buruzkoak:

Zuen seme/alabaren edozein arazoren aurrean, lehenengo eta behin, tutorearengana jo beharko duzue derrigorrean, bera baita bere zuzenenko arduraduna.

Jantokiari buruzkoak:

Jantokiko arazoak jantokiko arduradunari esan behar dizkiozue.

Eskolaz kanpoko ekintzei buruzkoak:

Jarduera horiekin zerikusia duten arazoetarako, IGEko arduradunengana jo beharko duzue.

Arazoak konpontzen ez badira:

Aurreko pausuak eman ondoren, arazoa ez dela konpondu uste baduzue, idazkaritzara jo eta zita bat eskatu ikasketa-buruarekin arazo akademikoetarako, edo zuzendariarekin, beste edozein motatakoa bada.

Gogoan izan beraz, edozein kexa baduzue, goian aipatutako pausuak jarraitu behar direla.

Eskolako elkarbizitza. Ikasleen arteko gatazkak

Dakizuenez, ikasleen arteko gatazken prebentzioan eta konponketan ahalegintzen dira irakasleak etengabe. Alabaina, zoritxarrez, gertatu gertatzen dira.

Edozein gatazkaren aurrean, familien arteko liskarrak saihestea eskatzen dizuegu eta konponbidea bilatzeko lehenago azaldutako pausuak jarraitzea.



Azterketak

Gogoratu pasa den ikasturtetik ez dugula azterketarik etxera bidaltzen, gurasoek ikusi ahal izatea ziurtatzeko, edo, erreklamaziorik balego, ikastetxean gordeta izateko.

Hala ere, azterketaren bat ikusi nahi izatera, dagokion irakaslearekin kontaktuan jarri. Horrela, berak argitu ahal izango ditu zuen zalantzak.



Eta ez ahaztu **ikaslea ebaluatzeko, azterketez gain**, beste alderdi batzuk ere **oso garrantzitsuak** direla, esaterako **gelako eguneroko lana, etxeko lana, jarrera eta ahalegina**.

Eskolatik kanpo egiten diren jarduera osagarriak

Irakasleek antolatutako ekintza osagarriek (egonaldiak, txangoak, irteera kulturalak...) **helburu didaktikoa daukate, programazioan sartuta dagoena**, nahiz eta eskolaz kanpo egin. Egonaldietara joaten ez den lehen hezkuntzako ikasleak eskola izango du, beste ikastalde batean, beren gelakideak itzuli arte.



Urtebetetzeen ospakizuna

Gogoratzen dizuegu urtebetetzeetan gozokiak, litxarrerriak eta opil industrialen ordeiz, beste **elikagai osasungarriagoak** ekarri behar direla eskolara. Gauza bera jolastorduan ekarriz gero.

Beste ohar batzuk Haur Hezkuntzako umeentzako

- Eskola barruan erantzi ohi dituzten **arropa guztietan** (jaka, jertse, beroki, mantala...) **umearen izena** ipini eta eskegitzeko zinta txanorik ez dutenei.



- **Siesta** egiten duten ikasleei **oinetako belkrodunak** edo **kreamaileradunak** ipini (izenarekin). Gauza bera **psikomotrizitate** saioa dutenean ere.

ESKOLA-OSASUNA

Gaixotasun arazoak

Ikasleen osasun arazoak

Zuen seme edo alabak **kontuan izan beharreko osasun arazorik** balu (**alergia, gaixotasun kronikoa...**), jakin arazi behar diguzue. Tutoreari edota idazkaritzan esan.

Gaixotasun kutsakorrak

Gaixorik dagoen ikasleak, **bereziki gaixotasuna kutsakorra** bada, **etxean egon beharko da** kutsatzeko aldia bukatu arte. Gauza bera, sukarra baldin badu.



Botikak ikastetxean ematea

Ikastetxean ezin dugu inolako botikarik eman, beraz, eskola orduz kanpo ematen ahalegindu beharko zarete. Beste erremediorik ez balego, **pediatrak sinatutako oharra** aurkeztu.

Ikasleen istripuak eskolan

Istripuaren larritasunaren arabera, honela jokatu da:

- **Istripua arina bada**, eta ez badago medikuaren beharrik, ikastetxean bertan artatuko da ikaslea.
- **Medikuaren beharra badu** eta bidaia egiteko arazorik ez badago, familiari deituko zaio, gertuen dagoen osasun-zentrora eraman dezan.
- **Istripua larria izango balitz**, eta garraiorako anbulantzia beharrezkoa izan, 112ra deituko litzateke eta aldi berean familiari abisua eman, ikasleari laguntzeko.

Zorrien arazoa

Beste urteetan bezala, ikasturtean zehar agertuko da noizean behin buruhauste hau. Ikastetxe guztietan ohikoa izaten den arazo horretarako **ez dago soluzio magikorik**. Gogoan izan **zuen laguntza, guztiena, ezinbestekoa** dela.

Gutxi batzuen interes ezak kolektibo osoa kaltetu dezake. Horregatik, gai horrekiko arduragabekeria edo zabarkeria kasurik balego, **Eskola Kontseilura** eramango da, dagokion neurriak hartzeko.

Zorrien arazoari aurre egiteko gomendioak:

✚ Aldian behin umearen burua aztertu. Eskolako oharra jasoz gero, egunero egin behar da.

✚ Ez erabili produktu bereziak prebentzio moduan. Baina zorriak edo bartzak antzemanaz gero, farmazian galdetu tratamendu egokiaz eta lehenbailehen aplikatu guztiak desagertu arte.



ESKOLAKO JANTOKIA

Kontuan izan beharreko datuak

Jantokiko arduraduna: Ziortza Uribelarrea


Oharretarako zuzeneko telefonoa: 944657652

Arretarako ordutegia: 9:00 - 9:45 eta 11:45 - 12:30

2015-2016 ikasturterako prezioak

✚ Eguneroko erabiltzaileak: 4,60 € (1)
✚ Aldizkako erabiltzaileak: 5,20 €

(1) Araudi berriaren arabera, urriaren 15a baino beranduago izena emanez gero, 5,20 €





Jantokien arautegiaren zenbait aspektu

- Eguneroko erabiltzaileak, jantokia astean 4-5 aldiz erabiltzen dutenak dira.
- **Aldizka erabili** ahal izango da jantokia, beti ere lekua badago eta **48 ordu aurretik** abisatu bada.
- Eguneroko erabiltzaileek soilik daukate ziurtatua zerbitzua. Aldizkako erabilpena, unean uneko bitartekoez baldintzatuko dute, beraz erreserba denboraz egitea komeni da.
- Arautegiak dionez, ikaslea 5 egunez jarraian (edo gehiago) jantokira joaten ez denean, **%50a kobratuko da**, gutxienez 48 ordu aurretik abisatu bada, ahal denean behintzat, lehen hutsegitea.
- Txangoetan **piknika eskatzen ez denean** ere **%50a** kobratuko da.

Bestelako informazioa

- Lehen Hezkuntzako ikasleen zaintza errazteko, eguraldi onarekin kirolgunea soilik erabiliko da jantokiaren ondoren. Eguraldi txarra denean berriz, kiroldegia.
- Liburutegia zabalik egongo da, beti ere erabiltzaile kopurua nahikoa bada.
- Jantokiko arduradunak piknika eskatu ahal izateko, gutxienez 10 eskaera jaso behar ditu.



2015-2016 IKASTURTE HONETARAKO ZENBAIT ERRONKA

Jarraian aipatuko ditugu 2015-2016 ikasturterako proposatu eta **Ikastetxearen Urteko Planean** jaso ditugun helburuetako batzuk:

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

Ikasturte honetan Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua garatzera bideratuko dugu gure lana. Gure ikastetxearen izaera, lortu nahi ditugun helburuak, antolaketa eta funtzionamendua biltzen duen dokumentu nagusia izango da. Eskola komunitate osoaren dokumentua izan behar du, eta, beraz, denek ekarpena beharko da. Horregatik, ikasturtean zehar, zenbait alderdi lantzean, inkesta edo galdetegiak jasoko dituzue, zuek ere iritzia edo ikuspuntua eman dezazuen. Honi buruzko zehaztasun gehiago izateko, idazki bat jasoko duzue aurrerago.

“Ikasketa Kooperatibo”aren Programa

Talde dinamikak erabiliz, talde lanerako egituren bidez eta horrela, gure neska-mutilen ikasteko prozesuan oso garrantzitsuak diren alderdiak sustatzen saiatzen gara, hala nola, **talde lana, parte-hartzea, ikasleen arteko elkarrekintza eta komunikazioa, elkartasuna eta bizikidetzeta.**



Ikasturte honetan bigarren faseari, orokortze faseari, ekingo diote iaz programan parte hartu zuten irakasleek, eta, lehen faseari (hasierakoari), ikasturte honetan IK Programan sartuko diren irakasleek.

Ikastetxeko azpiegiturak eta baliabide teknologikoak hobetzea

Testuliburuaren Programari buruzko 2015eko ekainaren 23ko ebazpenean **garrantzi berezia dauka alderdi digitalak**. Ikasturte honetatik aurrera **3. zikloko liburuek euskarri digitalean egon behar dute**, eta, berdin **datozen ikasturteetan Lehen Hezkuntzako gainerako mailetan** ere. Hauxe da aurreko ekaineko azken zirkularrean aipatu genizuen berritasuna.

Oraindik, ordea, ikastetxeak **ez daude prestatuta pausu horretarako**. **Konexiorako arazo handiak daude** eta ikasleen **mini-ordenagailuak zaharkituak** daude. Gure kasuan, Lehen Hezkuntzako gela guztietan arbel digitalak izateko zortea dugun arren, horrekin ez da nahikoa.



Ikasturte honetarako gure helburua **gabezia horiei erantzuteko irtenbideak bilatzea da** eta **erronka horietara heltzea** (tresna modernoagoak eta konexio hobea izatea) ahalbideratuko diguten proiektuak osatzea.

Patioak berritzea

Ikastetxeak hala eskatuta, pasa de ikasturtean udalak **ikastetxeko patioak konpondu eta eraberritzeko plan berria** enkargatu zuen. Horretarako ikasle guztien, irakasleen eta IGE eta OOGko gurasoen ekarpenak kontuan hartu ziren. Plana Eskola Kontseiluan aurkeztu

eta onartu zen. Batzar berean alkateak proiektua datozen urteetan burutzeko konpromisoa hartu zuen.

Helburua konponketa eta hobekuntzak hezkidetzeta eta elkarbizitzaren sustapena kontuan hartuta egitea da, ikastetxeko ikasle guztiak gustura ibili daitezzen.

Hasteko, **kirolgunea** ezarri da (lehenengo hareazko zelaian), **patioko gainontzeko guneak jokorako eta aisialdirako erabiliko direlarik**. Egiten ditugun aurrerapenen berri emango dizuegu.

Beste batzuk

Esandakoez gain, beste helburu batzuk ere pentsatu ditugu: elkarbizitza hobetzeko eta hezkuntza arloetako hainbat alderdi lantzeko, hala nola, irakurmena, ahozko komunikazioa, problemen ebazpena edo zientzia esperimentuak.

OOG edo ESKOLA KONTSEILUA

Ordezkaritza Organo Gorena (OOG) Traña-Matiena Eskolan eskola-komunitateko kideek parte hartzeko duten gobernu-organoa da. Eskolako bizitzan eragina duten funtsezko erabakiak berak hartzen ditu; bera dugu eskolaren autonomia-esparruan, ikastetxearen funtzionamenduaren arduraduna.

OOG edo Eskola Kontseiluak, une honetan 30 kide ditu. Horietatik 15 gurasoen ordezkariak dira eta 13 irakasleenak. Horiez gain, Udaletxeko ordezkari bat dago eta irakasle ez diren beste langileen ordezkari bat. Eskola Kontseiluaren lehendakaritza ikastetxeko zuzendariari dagokio.

Eskola Kontseiluko kideak	
Lehendakaria	
José Manuel Martín	
Ikasketa Burua	Idazkaria
Ana Jesus Zabaleta	Carmen Lasuen
Gurasoen ordezkariak	Irakasleen ordezkariak
Mónica Delgado, Alberto Delgado, Yolanda Fernandez, Maite Muñoz, Kati Simon, Estibaliz Urrutxurtu, Belen Urriz, Belen Torrescusa, Eneko Etxebarria, M. Sol Fernandez, Yolanda Gutierrez, Ainoa Idigoras, Sandra Lopez, Ainhoa Moreno y Ana Belen Sanchez.	M. Luisa Perez, Nerea Lizundia, Mertxe Gorospe, Arrate Pagonabarraga, Yolanda Arrizabalaga, Bego Bilbao, Karmele Gallastegi, M. Sol Juaristi, Lourdes Pagonabarraga y Naroa Uriguena.
Irakaslea ez den langileriaren ordezkaria	Udal ordezkaria
Asun Gorospe	Argi Abad

IKASTETXEKO LANGILERIA

IRAKASLE TALDEA			
ZUZENDARITZA TALDEA			
Anaje Zabaleta Ikasketa Burua	José Manuel Martín Zuzendaria	Carmen Lasuen Idazkaria	
TUTOREAK			
Haur Hezkuntzakoak			
2 urte A	Karmele Gallastegi	Eli Puiggros	2 urte B
3 urte A	Maria Luisa Perez	Carmen Cenigaonaindia	3 urte B
4 urte A	Janire Omar	Itziar Barrenetxea	4 urte B
5 urte A	Amaia Garcia	Goizalde Ugalde	5 urte B
Lehen Hezkuntzakoak			
1. A	Itziar Azkarraga	Marije Gorrotxategi	1. B
2. A	Nerea Lizundia	2. B Idoia Zabala	Agurtzane Astelarra, Xuban Gallego
3. A	Jon Zameza (Leire Santeodoro)		Bego Bilbao
4. A	Rosa Trancho	Lourdes Pagonabarraga	4. B
5. A	Arrate Pagonabarraga	Mertxe Gorospe	5. B
6. A	Yolanda Arrizabalaga	Ines Lasuen	6. B
IRAKASLE ESPEZIALISTAK eta LAGUNTZAKOAK			
Musika		Erljioa	
Ibone Arandia, Laura Donoso		M. Carmen Carton (Leire Areitioaurtena)	
Gorputz Hezkuntza		Ingelesa	
Jabi Gorbea		Idoia Elorriaga, Jorge Martin	
Pedagogía Terapeutikoa		Kontsultorea	
M. Jose Crespo		Maribi Gallastegi	
Jantokiko arduraduna		ALE (logopeda)	
Ziortza Uribeharrea		Galder Ajubita	
Laguntza-2 urte eta IKT arduraduna		Naroa Uriguena	
Laguntza-HH eta Hizkuntza Indartzea		M. Sol Juaristi	
Hezkuntza Laguntzako Espezialista		Inma Zapardiez	

GAINONTZEKO LANGILEAK	
Atezaina: Asun Gorospe	Mantentze-lanak: Jose Luis Gangoiti
Jantokia: Sukaldea: Ana Gomez, Pili Agredeño, Bea Puente; HH: Loli Uriarte, Jasone Unamunzaga, Maialen Martitegi, Maite Arginzoniz, Irune Fernández, Lorena Urkullu, Bea Gómez. LH: Virginia Casquero, Ana Irasuegi, Marisa Urien, Nerea Llaguno, Lorea Zenikazelaia, Nieves Caviedes. Office: Ana Gómez, Bea Puente, Aiora Sillero, Pili Agredeño.	
Garbitasuna: Vanesa Panadero, Almudena Cedeño, Ana Goienetxea	

Ikasleen Guraso Elkarte (IGE)

Eskolako jardueren antolaketan gurasoen parte-hartze aktiboa sustatzea da Elkarte honen helburua. Honako hauek egiten ditu, besteak beste:

- ✓ **Eskolaz kanpoko ekintzen antolaketa.** Hau da Elkarteak egiten duen lanik handiena eta hainbat jarduera egiteko aukera zabala eskaintzen du.
- ✓ **Ikasleentzako diru-laguntza eman** irakasleek antolatutako zenbait txango eta egonaldi ordaintzen laguntzeko.
- ✓ **Ikastetxeko zenbait proiektu pedagogiko diruz lagundu.**
- ✓ **Eskolarako** beharrezko diren **zerbitzu eta ekintzak bultzatu**, hala nola psikologoa, guraso eskola...
- ✓ **Ikasturte amaierako txangoa eta jai antolatu** eta eskolako beste jai batzuetan **lagundu**: Euskararen eguna, Gaztainerre, Olentzero, Inauteriak...

Ikastetxeko gaur egungo antolaketan IGEk egindako lanaz ikasle guztiak baliatzen dira. Hori dela eta, OOGk hala eskatuta, guraso guztiak dira, printzipioz, elkartearen partaide. Hala ere, baten batek nahiko ez balu, IGEren bulegoan (urte 2ko gelen ondoan) adierazi beharko luke.

IKASLEEN GURASO ELKARTEA		
Idazkaria	Lehendakaria	Diruzaina
Goyuria Lopez	Alberto Delgado	Jone Bote
Batzordekideak		
Jose Gallardo, M. Mar Fernandez, Rosana Petite, Ainhoa Larruskain eta Gertrudis Taboada		

Aipatutakoez gain, beste hainbat gurasok ere laguntzen du ikasturtean zehar.

Eskolaz kanpoko jardueren eskaintza 2015-2016 ikasturtean	
Ingeles Ludikoa	Psikomotrizitatea
Eskulanak	Ninjutsu
Estimulazio Musikala	Kick Boxing
Mekanografia	Atletismoa
Kitarra	Heziki
Dantza Modernoa	Saskibaloia
Euskal Dantza	Futbola
Xakea	Patinajea